



Sagardoaren
lurraldea
*El territorio
de la sidra*

Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga - Gipuzkoa
Tel: 00 34 943 550 575
info@sagardoarenlurraldea.eus
www.sagardoarenlurraldea.eus

PRENTSA DEIALDIA

Gaia:

2018ko txotx boladaren irekiera. XXV. Sagardo Berriaren Eguna 2018.

Data: 2018ko urtarrilak 15.

Ordua: 12:00.

Tokia:

Prentsaurrekoa:

Sagardoetxea, Euskal Sagardoaren Museoa
Kale Nagusia, 48
20115 Astigarraga

Txotx irekiera:

Gurutzeta Sagardotegia
Oialume bidea, 63
20115 Astigarraga

Deskribapena:

Sagardoaren Lurraldeak antolatuta, urtarrilaren 15ean XXV. Sagardo Berriaren Eguna 2018 ospatuko da 2018ko txotx denboraldiari hasiera emateko. Aurtengo gonbidatua **ALBERTO IÑURRATEGI mendizalea** izango da.

Aurten Sagardo Berriaren Egunaren hogeita bosgarren edizioa izanik, **aurreko urteetako protagonista guztiak** gonbidatu dira 2018ko txotx irekiera ospatzera.

Egitaraua:

11:30-12:00: Akreditazioen banaketa **Sagardoetxean**.

12:00: Prentsaurrekoa Sagardoetxean. Bertan azalduko dira 2017ko uztaren ezaugarri nagusiak, sagarraren eta sagardo berriaren ezaugarriak eta sagardoaren munduko gertaera garrantzitsuenak.

12:45: Alberto Iñurrategik **sagarrondo** bat landatuko du Sagardoetxeako sagastian.

13:30: Txalapartarien deiarekin batera sagar dantza dantzatuko da, eta ondoren, sagardogileek Alberto Iñurrategi soka dantzan parte hartzera gonbidatuko dute lehen kupela irekitzeko.

13:45: Gurutzeta sagardotegian "Gure Sagardo Berria" oihu eginda **lehen kupela irekiko** du Alberto Iñurrategik eta honekin batera 2018ko txotx denboraldiari hasiera emango zaio. Ondoren, denboraldiko sagardotegiko lehenengo menua dastatuko da.

Arratsaldean, Txotx Berri Herrikoa 2018:

17:00: Familientzako tortilla tailerra.

19:30: Txotx herrikoa: herritarrei irekitako pintxo eta sagardo dastaketa.

22:00: Itxiera.

Astigarragako tabernek sagardo berria eskainiko dute.

Asistentzia baieztatzea beharrezkoa da akreditazioak pertsonalizatu ahal izateko. Akreditazioak Sagardoetxea Museoa banatuko dira 11:30etatik 12:30etara bitartean eta Gurutzeta sagardotegian 13:00etatik 13:30etara bitartean.

XXV. Sagardo Berriaren Eguneako protagonistei **elkarriketak** egiteko bi gune ezarriko dira: bata, Sagardoetxean sagarrondoak landatu ostean, eta bestea, Gurutzeta sagardotegian txotx irekieraren ostean. Elkarriketen kudeaketa hobetzeko asmoz, elkarriketak egiteko tarteak baieztatzea eskatzen da.

13:30etan emango zaio hasiera sagardotegian egingo den irekierari **txotx irekierako protokoloarekin**. Sagardoaren Lurraldeako antolakuntza taldea bertan izango da argibide gehiago emateko.

—

Informazio gehiagorako:

Leire Alkorta (Prentsa arduraduna)

Telf: 943 550 575 / E-maila: info@sagardoarenlurraldea.eus